Bestelako Xedapenak

URAREN EUSKAL AGENTZIA

2129

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: «Ebazpena, 2010eko otsailaren 25ekoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, beraren bidez ebazten da urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programetarako eta egitasmoetarako diru-laguntzen deialdia.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Modu horretako hutsak atzeman dira 2010eko otsailaren 25eko, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren Ebazpenean, zeinaren bidez ebazten baita urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programetarako eta egitasmoetarako diru-laguntzen deialdia (2010eko martxoaren 18ko EHAAren 53. zenbakia). Hona hemen zuzenketak:

Ebazpenaren hirugarren artikuluan, bai euskarazko bai gaztelaniazko testuan, 1605. orrialdean (2/12 eta 2/13), honako hau dioen tokian:

«Ebazpen honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun, erakunde hauek izan ahalko dira: udalak, mankomunitateak, partzuergoak, eta tokiko beste erakunde batzuk; horietako batek edo batzuek osatutako tokiko merkataritza-sozietateak; unibertsitateak; teknologia-zentro publiko edo pribatuak; eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak eta fundazioak. Diru-laguntza horien helburua urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen ekimenen gastuak ordaintzea izango da.»

Honako hau esan behar du:

«Ebazpen honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun, erakunde hauek izan ahalko dira: udalak, mankomunitateak, partzuergoak, eta tokiko beste erakunde batzuk; horietako batek edo batzuek osatutako tokiko merkataritza-sozietateak; unibertsitateak; teknologia-zentro publiko edo pribatuak; eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak, fundazioak eta erakunde juridiko pribatuak. Diru-laguntza horien

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DEL AGUA

2129

CORRECCIÓN DE ERRORES de la «Resolución de 25 de febrero de 2010, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se resuelve la convocatoria de subvenciones para la innovación, investigación y desarrollo de programas y proyectos relacionados con el agua y los sistemas acuáticos.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento. Dichas correcciones se llevarán a cabo a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en la Resolución de 25 de febrero de 2010, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se resuelve la convocatoria de subvenciones para la innovación, investigación y desarrollo de programas y proyectos relacionados con el agua y los sistemas acuáticos (BOPV n.º 53, de 18 de marzo de 2010), se procede a su corrección:

En el tercer artículo de la Resolución, en la página 1605 (2/12 y 2/13), donde dice:

«Podrán ser entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Resolución los Ayuntamientos, Mancomunidades, Consorcios, y otras Entidades Locales, las sociedades mercantiles locales integradas por una o varias de ellas, universidades, centros tecnológicos públicos o privados, así como a las Asociaciones y Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo objeto es sufragar los gastos derivados de las iniciativas relacionadas con la innovación, investigación y desarrollo relacionados con el agua y los sistemas acuáticos.»

Debe decir:

«Podrán ser entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Resolución los Ayuntamientos, Mancomunidades, Consorcios, y otras Entidades Locales, las sociedades mercantiles locales integradas por una o varias de ellas, universidades, centros tecnológicos públicos o privados, así como a las Asociaciones y Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las instituciones jurídicas

helburua urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen ekimenen gastuak ordaintzea izango da.»

privadas, cuyo objeto es sufragar los gastos derivados de las iniciativas relacionadas con la innovación, investigación y desarrollo relacionados con el agua y los sistemas acuáticos.»